

Epstein-Barr birusaren aurkako antigorputzek esklerosi anizkoitza garatzeko arriskua handitzen dute

Epstein-Barr birusaren aurkako antigorputz batzuek esklerosi anizkoitza garatzeko arriskua handitzen dute aldaera genetiko jakin batzuk dituzten pertsonengan. Horixe ondorioztatu dute Karolinska Institutuko eta Stanford Unibertsitateko ikertzaile batzuek. Birusaren proteina jakin baten aurkako antigorputzak dira, baina, aldi berean, nerbio-sistemako antzeko beste proteina batzuk kaltetzen dituzte.



Epstein-Barr birusak. ARG.: NIAID.


Epstein-Barr birusaren eta esklerosi anizkoitzaren arteko lotura aspalditik ezagutzen da, eta hainbat ikerketatan topatu dira horren zantzuak. Dagoeneko, birusaren infekzioa ezinbesteko baldintzatzat jotzen da gaitza garatzeko. Baina birus horrek populazioaren % 90-95 infektatzen du, eta oraindik ez da ezagutzen zergatik garatzen den esklerosi anizkoitza pertsona batzuetan.

Ikertzaileek esklerosi anizkoitza duten 650 pertsona eta populazio orokorreko 661 pertsona aztertu dituzte. Aurreko ikerketa batzuetan frogatua zegoen birusaren EBNA1 proteinaren aurkako antigorputzek garuneko beste 3 proteinen aurka egiten dutela. Orain, ikusi dute esklerosi anizkoitza duten pertsonetan antigorputz horien mailak altuagoak direla, eta ikusi dute hori faktore genetiko jakin batzuekin lotuta dagoela. ●

Giza aurpegia duen espezierik zaharrena aurkitu dute Atapuercan

Europa mendebaldeko giza aurpegirik zaharrenaren fosila aurkitu dute. *Homo affinis erectus* deitu diote (ezizenez, *Pink*); izan ere, ez du bat egiten orain arte ezagutzen diren espezieekin, baina *Homo erectus*-aren gertukoa da.

Aurretik ere, aztarnategi berean (beste maila batzuetan) aurkitu izan dituzte ordura arte fosilik zaharrenak zirenak: *Homo antecessor*, duela 900.000 urtekoa, eta duela 1,2 milioi urteko matrailezur bat. Hezur-zati hura ez zen nahikoa jakiteko zer espezie-takoa zen, baina argi zuten *Homo* zela. Oraingo hau hura baino 2,5 metro sakonago aurkitu dute; hortaz, badakite are zaharragoa dela.



Homo affinis erectus gizakiaren fosil aurkitu berria. ARG.: Maria D. Guillén/IPHES-CERCA.

Masailbo-hezuraren eta matrailezuraren zati bat da aurkitutakoa. Azterketa fisiko-kimiko eta anatomikoek erakutsi dutenez, aurpegiak *H. antecessor*-enak baino itxura zakarragoa du, eta, *Homo erectus*-enaren antza badu ere, ez da guztiz harena bezalakoa. Horrenbestez, oraindik ez dakite zein izango zen bere lekua historia ebolutiboan. Edonola ere, ikertzaileek aurreratu dute aztarnategian lanean jarraituko dutela eta espero dutela etorkizunean datu gehiago izatea, puzzlearen piezak ahokatzeko. ●